SANJUANAK,
BALENTZIAGAKO JAIAK

40. zenbakia - 2005eko ekaina

GETARIARRON TOPAGUNEA

artzape

]I. IBILALDI NEURTUA] EUSKARAREN KALE NEURKETA] URSULINAK GETARIAN]

Joxean Urangarekin Errealaz

SOKOA
Giro alaia eta jatorra!
Elkano 17. Tel.: 943 140 952

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta
plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

AGERRE · 943 140 446
AIZPURUA · 943 140 696
AKARREGI TXIKI · 943 140 726
AMEZTOI · 943 140 918
ARREGI · 943 580 835
BASA-LORE · 943 132 231
EIZAGUIRRE · 943 130 303
ETXETXO · 943 140 085
GAINTZA · 943 140 032
GAÑETA · 943 140 174
REZABAL · 943 580 899
SANTARBA · 943 140 452
TALAI BERRI · 943 140 750
TXOMIN ETXANIZ · 943 140 702
ULACIA · 943 140 893
ZUDUGARAI · 943 830 386
GETARIAKO TXAKOLINA
DENOMINACION DE ORIGEN

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA,17
14 07 04

ITSAS MENDI
gutiziak
Kaia z/g
Tel.: 943 140 993
Mugikorra: 649 947 855
20808 GETARIA

POLITENA
TABERNA JATETXEA
Pintxo bereziak • Bokata labekatu berriak • Berezitasuna menutan
Kale Nagusia, 9-11 • Tel. 943 140 113 • 20808 GETARIA

Santander
Central Hispano

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

BABEXA
Getariako Dendari Elkartea

ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel.: (+34) 943 899 100 Fax:(+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

San Joan sua

artzape

40. zenbakia

2005eko ekaina

]5/Inkesta: Parte hartzen al duzu udako kiroletan?

]6/Getarian zer berri?

Futbito Txapelketa. Arrantzaleak atunetan.

]8-11/Elkarrizketa: Josean De La Hoz Uranga, Errealeko jokalari ohia

]12-13/Argazkiak: I. Ibilaldi Neurtua

]14/ Sanjoanak Balentziagan

]15/ ELAN-EUSKADI

]16-17/ Herri Eskola: institutu atarian

]18/ Ursulinak Getarian

]20/ Katraponako petriletik: Zihotzako Fermina

]23/Akordatzen: Ama Birjina moilan

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Irantzu Ezenarro, Jon Illarramendi
[lan taldea] Ane Azkue, Josune Urresti, Agurtzane Uzin, Kepa Iribar,
Zigor Saizar, Josune Uzin [kolaboratzaileak] Irati Azkue,
Eneritz Abruza, Jon Arakistain eta Emeterio Sorazu [karikatura] Nora Azkue
[maketazio berria] Vicente Dávila [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape
[inprimaketa] Gertu [tirada] 1.075 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

] gutunak

87 egun greban, zergatik?

Zarauzko Santa Ana Egoitzako Juntari eskaera batzuk egitea erabaki genuenean, ez genekien 87 egun greban pasa ondoren Zarauzko plazan akanpatuta bukatuko genuenik. Zer gertatu da emakume talde bat plazan akanpatuta gau eta egun egoteko?

Egunero, eguerdiko 12:00etan Zarauzko kaleetan barrena egin dugun manifestazioan, honela zioen lemak: *Gure aiton-amonek gehiago merezi dute.* Egoitza batean bertan egiten diren inbertsioak garrantzitsuak dira, baina benetan zerbitzua nolakoa den langile kopuruak eta horiek dituzten lan baldintzek finkatzen dute. Ildo horretan, Foru Aldundiak, Europako hegoaldeko ereduei jarraituz, gero eta gehiago eskatzen den zerbitzu honi erantzuna emateko, soldatak murriztu eta egoitzak pribatizatu nahi ditu. Baina giza politika oker honetan, Aldundia ez da bakarrik geratzen, Zarauzko alderdi politikoek EA eta PNVtik hasi eta PSOE eta PP arte, babes osoa eman diote. Zarauzko alkatearen eskua izan da Aldundiak egindako partitura jo duena, eta gainontzeko alderdiek, EB izan ezik, koroa egin diote.

Lan baldintzak nola dauden ideia bat egiteko, kontuan izan behar da kategoria berdinetan, Osakidetzan soldatak %30 altuagoak direla eta 120 lan ordu gutxiago egiten dituztela.

Lortu ditugun emaitzekin gustura gaude. Gure eskubideen alde borrokatu dugu, ez hori bakarrik, gure aitona-amonek zerbitzu hobea izan dezaten ere borrokatu dugu. Gai hau kalera atera behar da, hitz egin behar da, jakin beharra dago gure agintariak zertan ari diren.

Greba honetan gertaera asko izan dira, baina bat ez dugu inoiz ahaztuko: Emakumeen Mundu Martxa Zarauztik pasa zen eguna da. Manta bat eduki genuen eskuetan, martxa pasa den herrialdetako emakumeek zati bana jositakoa. Berarekin argazkiak egin eta greban geundenoi lore bana oparitu ziguten. Malko asko izan ziren. Omenaldi hau beste emakumeei geuk egingo diegu hurrengo batean; emakumeon borroka horrelakoa da. Gizartean leku duinago baten bila ari gara, eta horren alde borrokatzen dugu, baina gure grebak beste helburu bat ere izan du: gizarte duinago eta maitakorragoa lortzea batik bat bizia azken udaberrira iristen denean.

Itziar Arregi, Aroa Belarbide eta Mari Jose Eizagirre. Santa Ana Egoitzako langileak

Azkoitian bai, eta Getarian zergaitik ez?

Azkenean BAI! Bi urte hauetan Getariako Ezker Abertzaleak hainbat aldiz eskatu die PNV, EA eta Aralarri 413 herritarren borondatea errespeta dezatela eta ilegalizazioaren aurkako neurri praktikoak martxan jar ditzatela: tokatzen ez zaizkien eserlekuei uko egin, dimisioak aurkeztu eta Hauteskunde Legearen (LOREG) 182.2 artikulua aplikatu, alegia. Eskaera guztietan ordea, erantzun berdina jaso dugu beren burua demokratatzat duten PNV, EA eta Aralarren aldetik: EZ borobila.

Hiru alderdiak, bi urte hauetan, era guztietako aitzakiekin getariarrak nahastu nahian ibili dira; alderdi konbentzionalek egin ohi duten bezala, herritarren aurrean biktima bezala agertu eta ilegalizazioaren aurrean duten erantzukizuna ezkutatu dute.

PNV, EA eta Aralarrek inoiz ez dute borondaterik izan 413 herritarren erabakia errespetatzeko eta Udaletxe demokratiko bat eratzeko; Azkoitian gertatu dena eta gero, erabiltzen duten hipokrisia agerian geratu da.

Orain urtebete, Lizartzan saiatu ziren Udal Demokratikoa osatzen, baina PNVko jauntxoek LOREG-aren 182.2 artikulua martxan jartzeari eta herritarren borondatea errespetatzeari ate guztiak itxi zizkioten, alderdiaren interes ekonomiko eta politikoak gailenduz.

Oraingoan, ordea, eta urtebete beranduago, Azkoitiko Batera Talde Independenteak justizia eta demokraziaren aldeko apustua egin du, zinegotziek dimititu eta LOREG-aren 182.2 artikulua aplikatuz, ilegalizatua izan zen Kimua herri plataformako zinegotziak berari tokatzen zitzaion eserlekua hartzea ahalbideratu du. Txalogarria benetan, Baterak hartu duen erabakia, eta txapela kentzekoa Herri Plataformek bi urte hauetan ilegalizazioaren aurka eta beraietaz baliatzen ari diren alderdien jarreraren aurka burutuko lana: Txapo! Injustiziaren aurkako borroka bere fruituak ematen hasi da!

Azkoitian posible izan bada plataformako kide batek eserlekua legalki betetzea Getarian ere posible da; baina demokrazia, justizia eta bakean ezer gutxi sinesten duten PNV, EA eta Aralarrek ezinbestekoa dute hitzetatik ekintzetara pasatzea. Ziur gaude beren kabuz ez dutela aurrera pausorik emango, baina guztion artean lor dezakegu Azkoitian bezala Getarian ere, 413 herritarren borondatea errespetatzea. DIMISIOAK ORAIN!

Haritz Alberdi . Iparrako hautetsia

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA, s/n Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

Elisabet Irigoien
ALBAITARITZA Kontsulta
NATURALA
Txanda aurretik eskatu
943-14 01 11 / 619-30 20 54
Nagusi kalea 24. GETARIA

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-200909

OSTOLAZA ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

] inkesta

Udako kiroletan parte hartzen al duzu?



Aurreko urteetan parte hartu izan deu kirol batzuetan, baina aurten udalekuetara joango gara eta ezin deu.

Josu eta Ibai Eizagirre

Ezin det kirolik egin uda guztian oporretan egongo naizelako kanpoan.

Unai Eizmendi

Uxue Alberdi eta Amaia Irazabal

Guk udan surfa egiteko asmoa deu. Aurreko urtean hasi ginen eta neguan ere ibili gara; aurreko urtetik hona hobekuntza igarri deu. Txapelketa batzuetara ere joan izan gara, eta asko gustatu zaigu bertako giroa. Kirol honetan jarraitzea pentsatzen deu gure maila hobetzeko.

Artzapetik begira

Irati Azkue

Sardinak latan

Bizi kalitatea gero eta hobea delako guztiak pozik gaude, hori ezin da ukatu... Baina bada zerbait nahiko burukomin ematen didana, eta nire desadostasuna adierazi nahiko nuke: larunbat gauetan Euskotrenek gaueko zerbitzu berezia jarri zuen Zumaia-Donostia ibilbidea egiteko. Gazte eta helduen beharrei erantzuteko premiazko zerbitzua, bizi garen lurraldean bizi garela eta errebueltaz josítako errepideak ditugu eta pertsona asko galdu dira bertan.

Lehenengo esan zerbitzu publikoa den aldetik, oso garestia iruditzen zaidala. Euro bat eta hogeita hamar xentimo ordaindu behar dira zutik eta gaizki joateko. Segurtasun neurriak ez dira betetzen inondik inora jende kopuruaz ari bagara. Adibide garbia da San Pelaio bezpera egunekoa: jendea autobusean kabitu ezin eta lagun batzuk kanpoan gelditu ziren. Edan eta gero autoa ez hartzeko proposamen ezin hobea eta zoragarria iruditzen zait, baina egunen batean zerbait gertatzen bada, istripuren bat-edo esaterako, hildako eta zaurituak ez dira bakar batzuk izango. Beharren arabera zerbitzuak indartu behar dira, kasu honetan, bi autobus jartzea ordu bererako.

Jendeak ordaintzen duena zerbitzu zehatz bat da, eta ez dela egoki betetzen iruditzen zait. Gertaera hori sarritan gertatzen da, eta udan oraindik ere gehiago. Azkena niri tokatu zitzaidan, San Pelaiotan, baina ikusiko dugu San Pedrotan Zumaian zer gertatzen den.

Bide batez, tarte hau aprobetxatzen dut agur esateko; denboralditxo baterako behintzat, aldizkari honetan idazteari utziko baitiot. Herriko jendea zoriondu nahi dut azken finean zuek zeuok izan baitzarete aldizkariaren eduki eta oinarria; zer kontatua badago eta nork kontatua ere bai. Horregatik gonbidapen bat luzatzen dizuet: protagonistak zareten aldetik bertan idaztera animatzeko; haur, gazte zein heldu.

Besterik gabe, ondo izan eta zoriontsu izaten saiatu.

gizarte ekintza

ASKIZU
Udal aterpetxea.
Ingurugiro eskola.
Erreserbak: 943 833 641
Etxe osoa: 200 €/eguna
Asteburua: 320 €
Askizu auzoa z/g 20808 Getaria - Gipuzkoa

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

Ametsak irabazi du aurtengo Xabi Iñurrita Futbito Txapelketa

Gure Txeruk antolatzen duen Xabi Iñurrita Memoriala VIII. Futbito Txapelketa Ametsa taldeak irabazi du. Ekainaren 18an jokatu zen finaleko partidan Elkano taldeko beteranoek ezin izan zuten Ametsak taldeko gazteen kontra, eta partida gogor baten ondoren 5-3 geratu zen markagailua.

Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida Indaux eta Irizabal taldeek jokatu zuten, eta penaltika erabaki behar izan zuten bosna bukatu baitzuten partida; azkenean, Irizabalek hirugarren postua lortu zuen eta Indauxek laugarrenarekin konformatu behar izan zuen.

Kopako finala Mayflower eta Inter Askizuren artean jokatu zen, eta Mayflowerrek irabazi zuen 6-1. Hiru partida horiez gain, txapelketan parte hartu duen neska taldearen, Ana Mariren, eta Zarauzko neska talde baten arteko partida ere jokatu zen, eta Ana Marik irabazi zuen 5-4.

Sari banaketaren ondoren, txapelketan parte hartu dutenek afaria egin zuten Berdura plazan.

Ametsa eta Elkanoren arteko finala eta irabazleak saria hartu ondoren.

Arrantzaleak atunetan ari dira

Hilabete pasa lehorrean egon ondoren, eta denbora tarte horretan hainbat mobilizazio egin ondoren, itsasoratu dira berriz ere arrantzaleak.

Jose Mari Irigoien kofradiako presidenteak azaldu digu gaur egun egoera zertan den "Europak hiru hilabeteko zierrea ezarri du; gure ustez ez da nahikoa, baina hiru hilabete ondoren azterketek hala eskatzen badute beste hiru hilabete itxiko dutela espero dugu". Hala balitz sei hilabete horiek pasa ondoren ikusi egin beharko litzateke zein egoeran dagoen antxoa.

Bitartean, mugaz bestaldeko arrantzaleak antxoa harrapatzen jarraitzen dute Europar Batasunak ezarritako itxiera indarrean sartu arte (hilaren bostean edo seian, agindua argitaratu ondoren sartuko da indarrean).

Antxoa ezak eta Europar Batasunak arrantzaleek horrenbeste eskatutako itxiera ezartzeak, aurten inoiz baino lehenago zimarroitan hastea ekarri du.

Hasiera nahiko eskasa izan dela kontatu digu Jose Marik: "Hegaluzea etortzeko zain gaude, bitartean zimarroitan jarraituko dugu".

Argazkia: Urola Kostako Hitza / A. Manterola

Zumaiako Itzurunen egin zen ekitaldia.

Malkorbe hondartzari Bandera Urdina

Ingurumen Hezkuntzarako Europako Erakundeak Malkorbe hondartzari bandera Urdina eman dio aurten ere. Bandera Urdina emateko, besteak beste, uraren kalitatea, uraren eta hondarraren garbitasuna eta hondartzaren segurtasuna hartzen dira kontuan.

Zumaiako Itzurun hondartzako sarreran egin zen ekitaldian, Antonio Arruti zinegotziak hartu zuen Bandera Urdina Sabin Intxaurraga, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolakuntzarako sailburuaren eskutik.

Eskuz Binakako Pilota Txapelketa bukatu da

Ekainaren 12an XXVII. Eskuz Binakako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren herriko frontoian. Aurtengo irabazleak Aitor Andreano eta Ekhiotz Etxeberria izan ziren Benjamin D mailan, Xuban Adrian eta Imanol Goikoetxea C mailan, Luis Segurola eta Unai Eizmendi B mailan eta Maikel Larrañaga eta Alex Rodriguez A mailan. Alebin-infantil mailan berriz Julen Ibarbia eta Mikel Agirre izan ziren txapeldunak.



Helduen %64,2ak bakarrik erabiltzen du euskara herrian

Batez besteko kale erabilera %75ekoa da egin berri den kale neurketaren arabera

Getariako Udaleko euskara teknikariak eta Soziolinguistika Klusterreko kide batek egin duten kale neurketaren ondorioek euskararen erabilera kalean batez beste %75ekoa dela erakutsi dute.

Kale neurketa maiatzean egin zen Getariako kaleetan euskara zenbat erabiltzen den aztertzeko helburuarekin, eta datuak aztertu ondoren Klusterreko kide batek aurkezpena egin zuen udaletxean.

Esan bezala, batez beste, %75ekoa da euskararen kale-erabilera, baina adintartearen arabera aldaketa handiak daude: haurrek %89,1 erabiltzen dute euskara kalean, gazteek %87,3 eta adinekoek %83,9; helduen erabilera-indizea da guztietan baxuena: %64,2.

Kale neurketaren emaitzak neurketa egin zen hiru gunetan banatuta ere eman zituzten aurkezpenean, eta gunearen arabera ere, alde nabarmenak daudela argi geratu zen: Ibilbide nagusian (Alde Zaharra, Aldamar parkea, Herrerieta, Balentziaga eta Potzuaga kaleak) %75,4 da erabilera-indizea; portuan nabarmen behera egiten du erabilerak %59,8ra arte; azkenik Herri Eskolako sarrera-irteeretan erabilera batez bestekoa baino handiagoa da: %81,1. "Haurrek euskaraz egiten dutelako eta helduek euskara gehiago egiten dutelako haurrekin daudenean" azaldu zuten.

Euskararen ezagutza 2001eko EUSTAT-en datuen arabera, %91koa da herrian, eta, horren arabera espero zitekeena baino baxuagoa da euskararen erabilera, "horrek erakusten du euskara dakiten guztiek ez dutela erabiltzen".

Haur eta gazteen artean euskararen erabilera altua da

Datuak, beraz, ez dira espero zitezkeen bezain onak, eta euskararen ezagutza maila ere beherantz ari da: 1986an %94,5ak zekien euskara; 1991n %93,6ak; 1996an %93,4ak eta 2001ean %91k. Ezagutzak adin tarte guztietan egin du behera azken urteetan, adinekoetan izan ezik.

Emaitzak ikusita argi geratu da euskarak duen ahulezi nagusiena helduen adin tartean gertatzen dela, eta haur eta gazteen artean erabilera altua dela.

Soziolinguistika Klusterreko kidea kale neurketaren emaitzak azaltzen udaletxean.

UDAL TALDE 21
UROLA KOSTA

Urola Kostako Udal Elkarteak herritarren parte hartzea saritzen du

Tomas Etxabe Arakistain Zumaiakoa izan da Urola Kostako Mankomunitateak Tokiko Agenda 21 prozesuarekin lotuta egindako zozketaren irabazlea, erakunde horretara udalerriari buruzko hausnarketak, ekarpenak, kritikak bidali dituzten guztien artean.

Urbasako Bioitza kanpinean lau pertsonentzako bungalow batean astebukaera bateko egonaldia da Urola Kostako Udal Elkarteak jarri duen oparia, herritarren parte hartzea bultzatzeko.

Nahitaezkoa da parte hartze hori Tokiko Agenda 21en aldeko apustua egin nahi bada, eta ildo horretan lanean dabil Urola Kostako Udal Elkartea azken hilabetetan.

Tokiko Agenda 21en bitartez, ekonomia, ingurumena, justizia sozialari buruzko analisi, diagnostiko eta neurri zehatzen ezarpenaren bidez, garapen iraunkorra lortu nahi da.

Jakina den bezala, 1994az geroztik, munduko hiri eta udalerri olde bat Tokiko Agenda 21aren garapenean murgiltzen joan da, udalerri mailan egindako ekintzen baturaren bidez, planetaren eta bere biztanleen arteko harreman bidezkoagoa lor dezagun.

Hala ere, udalerri mailan hartutako neurriak, maila pertsonalera iristen den inplikazioa dakar. Ildo horretan, HOGEITA BAT buletinaren lehen alea banatu ostean, eskualdeko herritar kopuru garrantzitsu baten ekarpenak eta hausnarketak jaso dira, eta Udal Elkarteko ordezkariek oso kontuan hartu ditzute gainera.

Bestalde, aipatutako erakundeak parte hartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkie beraien iritziak bidaltzeagatik eta parte hartzen jarraitzeko gonbita luzatzen die, bakoitzaren iritzia garrantzi handikoa baita. Jasotako kolaborazioen arabera, ondoko gaiak dira kezka handien sortzen dutenak: gazteei zuzendutako etxebizitzen gabezia, bizikletaz ziurtasun handiagoz ibiltzeko bidegorriak egitearen beharra, automobilen gehiegizko erabilera, kale-garbiketa, kutsadura akustikoa eta atmosferikoa eta abar.

JOXEAN DE LA HOZ URANGA:

"Denon Errealarekin jarraitzaileen artean poztasuna sortu dugu"

Itsasoko urdinetik zelaiko berdegunera pasatu zen 1968ko martxoan. J.A. Uranga izenarekin 10 urtez aritu zen elastiko txuri-urdinarekin lehenengo Sansen, eta gero Errealean. Egun, abokatu lanetaz aparte, Denon Erreala plataforma bultzatzen dihardu buru-belarri. Horretaz guztiaz gain, Atotxan ikurrina zelairatu zuen egunaz ere aritu gara.

Itsasoan lan egitetik Errealean jokatzera. Nola gogoratzen dituzu urte haiek?

Itsasoan lanean ibili ondoren, 1968ko martxoan hasi nintzen futbolean jokatzen. Sansen hasi nintzen lehenengo kontratu probisional batekin, eta ondoren ekainean kontratu ofizialarekin. 72ra arte aritu nintzen Sansen, eta jarraian Errealera igo nintzen Urrutikoetxea, El Koro, Murillo eta Muruzabalekin batera.

Oso giro ona zegoen jokalarien artean, asko izaten ginen denboraldi hasieran; 50 bat lagun hasten ginen entrenatzen, eta, gero, 23 gelditzen ginen. Errealak preferenteko beste taldeekin konbenioak zeuzkan, eta beste taldeetara jende asko bidaltzen zuen. Baina ni beti Sansen geratu naiz. Sansen baino lehenago egia da Logroñesen hastekotan izan nintzela, Zarauzko alebinetan jokatzen nuenean lehenengo etorri zen taldea Logroñes izan zen; han fitxa egiteko zain nengoela Sansetik deitu zidaten... Nahiago nuen, hurbilago, Sanse filial bat zen, Erreala lehenengo mailan zegoen...

■ Atotxan Iribar eta Kortabarria ikurrinarekin. Bi jokalarien erdian J. A. Uranga; bera arduratu zen ikurrina zelairatzeaz bi jokalariei emateko.

"Garai hartan futboleko jokalariok orain baino politizatuagoak geunden"

Zein postutan jokatu izan duzu?

Hasieran beti atzean lateral ezkerrean, baina geroago, bietan, bai ezkerrean, bai eskuinean; baina normalean ezkerrean. Entrenatzailearen arabera izaten zen.

Nola gogoratzen duzu Atotxan ikurrina atera zeneko mementoa?

Orduan ikurrina legalizatu gabe zegoen; ikurrina 77an legalizatu zen. Gure bandera ikurrina zen, eta debekatuta zegoen. Hori horrela zerbait egin behar zen. Beste une batzuetan beste pankarta batzuk ere atera genituen zelaira: presoak euskal herrira, presoak etxera... Lehen jokalariak orain baino politizatuagoak geunden...

Gure herria egoera latz batean zegoen, Franko hil zen, trantsizioa... Guk ere jokalari gisa eta herriaren zati bezala zerbait egin behar genuen. Klandestinitate hartan Kortabarria eta Iriarterekin hitz egin zen. Bilbotarrak etorri eta ordu bete lehenago esan genien presioa eginez: "Ikurrina aterako dugu eta ez duzue beste erremediorik"... Beraien artean hitz egin zuten, eta baietz esan ziguten. Ikurrina atera eta hilabetera legalizatu zuten, San Sebastian Egunean.

Ikurrina atera zenean zein izan zen harmailetako jendearen erantzuna?

Jendearen harrera ikaragarria izan zen jendea emozionatuta, negarrez, hunkituta, txaloka... oso gustura. Partidu hartarako ez nengoen konbokatuta eta nik atera nuen ikurrina kanpora Iribar eta Kortaberriari emateko. Oso urduri nengoen, polizien artetik pasa behar izan nuen eta atxilotu egingo nindutela pentsatu nuen; baina ez zen horrelakorik gertatu. Geroago polizia horiek kargu eman zuten, baina azkenean ez zen salaketarik jarri.

Zein da gogoratzen duzun partidarik emozionanteena?

Batez ere Athletiken aurka jokatzen genituenak. Atotxan 3 eta 1 irabazi genuen... Momentu inportanteak ziren haiek... Baita 65ean edo 67an, aurretik Real Madrili ez zitzaion inoiz irabazi Atotxan, eta 1 eta 0 irabazten gindoazela, azken minutuan berdinketa lortu zuten madrildarrek. Jendearen giroagatik eta animoengatik garrantzitsua izan zen...

Partidarik zailena?

Emaitzen gorabehera izaten zen. Nik uste zailak denak izaten direla.

Eta liskartsuena?

Bernabeun, Madrilen aurka jokatu genuena baita, 1 eta 0 gindoazen irabazten, 74an gutxi gorabehera, Breitnerrek, Netzerrek jokatzen zuten orduan... Azkeneko zazpi minutura arte irabazten joan ginen, pentsatzen genuen beti bezala irabazi ez genuela egingo, Madrili beti azkeneko minutuan edo aldeko penaltiren bat ematen ziotelako, eta bost minutu falta zirela sartu zuten berdinketako gola, eta azkeneko minutuan, nola ez, penalti Real Madrilen alde... Baina kasualitatez edo suertez Breinerrek kanpora bidaldi zuen. Berdinketarekin gelditu ginen, oso partidu gogorra izan zen.

Errealean zeunden bitartean zer moduzko emaitzak lortu zenituzten?

Erreala lehenengo mailara 67an edo igo zen, ni Sansen nengoen. Errealera igo nintze-



nean, lehenengo urteetan Errealak lortu zituen ordura arte historian lortutako emaitzarik onenak. Hiru urte jarraian UEFArako sailkatzea lortu genuen... Ez zen erraza! Orduan, sailkapeneko lehenengo laurak joaten ziren UEFAra. Hori izan zen liga irabazi baino lehenagoko pausoa... Garai haietan ez zen erraza eta orain ere ikusten baduzue ez da erraza postu horietan geratzea.

Lehengo jarraitzaile eta oraingoen artean diferentziarik ikusten al duzu?

Atotxa txikiagoa zen, eta jendea gainean zeneukan. Hori animatzeko hobea zen, orain Anoetan zelaiaren inguruan dagoen atletismo pistarekin jendea hotzago egoten da. Atotxako giroa nahiago nuen, baina kritika egin behar zenean ere okerragoa izaten zen.

Partidak jokatu eta herrira itzultzean zer nolako harrera izaten zenuen?

Garai hartan Getarian bizi nintzen, Getariatik egon zen lehenago De Diego, gero Madrilek fitxatu zuen.

Igandean partida jokatu eta astelehenean Getariara etortzen nintzenean frontoitik Artzapera iristeko batek geratu eta besteak geratu, denbora behar izaten nuen. Nolabait banintzen objektu futbolistiko bat.

Zure garaiko jokalariekin harremanik mantentzen al duzu?

Bai, bai, bai... Ostegunero Zubietara joaten gara areto futbolean jokatzera, urte asko daramazkigu hau egiten, baina gertatzen dena da gero eta zaharragoak garela...

Errealean jokatzea bukatu eta gero, beteranoen mailan 80ko hamarkadan ikastolen aldeko festak egiten ziren eta partidu gehienak Erreala eta Athletiken artekoak ziren... Leku askotatik deitzen ziguten. Orain, gainera, Denon Erreala plataforma bultzatzen ari gara eta, ondorioz, are gehiago elkartzen gara. Garai hartako jokalari gehienekin dut harremana.

Denon Erreala aipatu duzu, zein dira plataforma honen helburu nagusiak?

Inoiz ez dugu pentsatu lehengo jokalariek horrelako plataforma bat bultzatu beharko genuenik. Baina azkeneko urteetan, eta batez ere azken urtean, juntan ikusi dugu jendea oso zatituta zegoela. Klubaren jarrera, akzionistek zeramaten bidea, ez zen egokia; hori horrela, Errealagatik zerbait egin behar zela pentsatu genuen, liskarrei aurre egin eta plataforma bultzatzea beharrezkotzat jotzen genuen.

Plataforma horretan hiru horiek nabarmendu dira beti, eta gainera, ez zaigu batere egokia iruditzen hiru hauen politika. Horiekin bat egitea liskarra mantentzea izango litzateke.

Loturako beste denak gureganatuta, argi eta garbi ikusi dugu hor interes partikularrak Errealaren interesen gainetik daudela. Hirurak bakarrik gelditu dira eta ez dakigu zer egingo duten, baina zurrumurruak daude irabaztea baino gehiago beraietako bat juntan egotea dutela helburua; 5.000 akziorekin dago postu bat lortzea junta barruan.

Irabaziko al duzue?

Guk ez dakigu irabaziko dugun edo ez, baina nolabaiteko poztasuna eta itxaropena sortu dugu akzionista eta jarraitzaile askoren artean... Hala ere, gure helburuak finkatzeko, akzionista asko behar dira, akzioak jende askoren artean baitaude banatuta.

Presidentziarako hautagaietako bat ere izan zinen.

Zurrumurruak zabaldu ziren baina hasieratik esan nuen ez nuela nahi izan ez presidente,

"Hasieratik esan nuen ez nuela presidente izan nahi"

Hala ere ez dugu lortu nahi izan dugun elkartasuna. Guk beti esan izan dugu interes orokorrak interes partikularren gainetik daudela. Lotura plataforma ere hor zegoen, horko kide gehienak gureganatzea lortu dugu. Baina hasiera-hasieratik garbi utzi genuen Loturak-eko hiru kide ez genituela nahi gure artean: Gallo, Gibelalde eta Plaza. ezta aholkulari ere. Postu hori hartzekotan, alde batetik, lana utzi behar duzu eta nik ezin dut utzi; eta, bestetik, dedikazio osoa behar duzu, familia, harremanak,... alde batera utzita. Gauza asko hartu behar dira kontuan. Beraz, argi eta garbi utzi nuen ez nuela nahi; hori bai, atzetik laguntzeko eta bultzatzeko beti egongo naiz prest.

"Kanterako politika mantendu behar du Errealak. Politika horrekin, ordea, emaitza onak lortzeko denbora behar da"

Gaur egungo Erreala eta lehengo Erreala nola ikusten dituzu?

Nire garaiko eta gero liga irabazi zuten jokalari guztiak hemengoak ginen, kanteratik sortutakoak. Gaur egunean, aldiz, futbolean dena aldatu da... Ekipo batean bat nabarmentzen bada, saldu-erosi diruak mugitzen du dena, diru horren menpe bizi zara eta dirua daukanak jokalariak erosteko ahalmena dauka. Begiratu zer gertatu den Del Hornorekin, Xabi Alonsorekin...

Garai hartan *Formazio Eskubidea* zegoen eta kanterako jokalariak beste taldetara eramatea debekatzen zuen horrek; hori horrela, Errealak talde on bat mantentzea lortu zuen: Arkonada, Satrustegi, Lopez Ufarte, Zamora... Jokalari horiek guztiak denbora luzez egon ziren, eta talde ona osatu zuten. Gaur egun zaila da horrelako talde ona mantentzea.

Kanteratik jokalariak ateratzeko politika mantendu behar du Errealak... Eta, noski, kanterako politikak emaitza onak emateko denbora behar du... Hori bai, fitxaje puntualak ere egitea beharrezkoa da. Besteek horrela egiten dute eta gu ere derrigortuta gaude horrela egitera.

Jose Antonio de la Hoz Uranga

(Uranga, J.A.)
Getaria 1949/01/08
Jatorria: Sanse
Errealean debuta:
1972/10/07 Las Palmas
Errealeko lehenengo denboraldia:
1972-1973
Errealeko azken denboraldia: 1977-1978
Errealean jokatutako partidak: 101
Postua: lateral ezkerra
Sansen golak: 6
Sansen jokatutako partidak: 98
Sanseko hasierako denboraldia:1968-1969
Sanseko azken denboraldia:1971-1972

J.A. Uranga Elcheren kontrako partidan Atotxan, 1974ko martxoaren 14an. 4 eta 0 irabazi zuten.

Irantzu Ezenarro

34 bikote eta giro ezin hobea I. Ibilaldi Neurtuan



34 bikotek, batzuek ume eta guzti, parte hartu zuten Udalak antolatu zuen I. Ibilaldi Neurtuan. Laida Belarbide eta Aitzpea Areizaga izan ziren irabazleak; ordu bete, 37 minutu eta 15 segundoan egin zuten ibilaldia eta aurrez ipinitako ordu bete 22 minutu eta 45 segundora gehien hurbildu zen denbora izan zen.

Goizeko 08:30erako plazan bildu zen ibilaldirako izena emandako jendea, eta azkeneko momentuan animatu zen bikoterik ere izan zen, guztira 34 bikote 8,5 kilometro egin eta Getariako txokorik ederrenetaz gozatzeko prest.

Zenbakiak eskuan idatzi eta galdera erraz bat erantzun ondoren, minturo bikote bati irteera eman zitzaion. Lormendi aldapa, ibilaldiko lehena, igo behar izan zuten lehenik, batzuk bizkor-bizkor, lasai eta kontu kontari beste batzuk.

Garate Gainetik gora jarraitu, eta ibilbidean gotorlekua, Arriaundi haitza eta izen bereko tumulua ikusteko aukera izan zuten parte hartzaileek. Ondoren Askizu aldera eta handik buelta handi bat emanez, Bizkarra baserritik barrena, San Prudentziorako bidea hartu zuten. Handik Loidi aldera, eta ondoren Akerregi Txiki eta Gaintza tartetik plazarako bidea hartu zuten.

Tartean hiru kontrol jarri zituzten denborak hartu eta ura banatzeko: Garate Gainean, Askizun eta San Prudentzion; denbora jakin bat egiteaz gain erregularra izatea baitzen eskatzen zena.

Lehenengo bikotea plazara heltzerako hamaiketakoa prest zegoen: salda bero-beroa, txorizo eta haragi egosia. Parte hartzaile guztiek I. Ibilaldi Neurtuko oroigarria jaso zuten, eta irabazleek, Laidak eta Aitzpeak, mendian ibiltzeko makila eta zapi bana.

INSALUS

Agurtzane Uzin

San Joan gaua: sua, magia eta sorginkerien gaua

Getariako Balentziaga kalean, San Joan jaia ospatzen da udari hasiera emateko. Lehen sua bakarrik egiten zen, baina orain dela 23 urte lagun talde bat elkartu zen eta suarekin batera pixkanaka-pixkanaka bestelako gauzak antolatzen hasi ziren: danborrada, sardin-jana, musika, ... Gaur egun, martxoa aldera juntatzen hasten dira ekainak 23ko eta 24eko egitaraua prestatzeko. Batzuk urte asko daramatzate lan egiten eta pixka bat nekatzen hasiak dira, baina orain jende gaztea sartu da taldean eta horrek aire berriak ekarriko dizkio jaiari.

Eguerdian Balentziaga kalera gerturatu zirenak hasebetetzeko mila txistor egosi ziren, baina bi ordutan dena bukatu zen. Antolatzaileen esanetan "motz geratu gara", seguru batzuk bat baino gehiago jan zutela eta beste batzuk, berriz, usainarekin konformatu behar izan zuten. Tripa erdi beteta, asko eta asko lokuluxka egitera joango ziren sabelari atseden ematera, arratsaldean txokolatearentzat ere lekua izateko.

Azken urteetako usadioari jarraituz, jaia sardin-jana eginez bukatzen da. Bakoitza bere etxetik ekarritakoarekin toldo azpian eseri, eta sardinen zain geratzen da batekin eta bestearekin berriketan.

Xirimiria izan genuen lagun San Joan jaien amaiera ospatzeko. Hala ere, toldo azpian eseri zirenak ez ziren euria ari zuenik ere ohartu, giro ona baitzegoen barruan. Sardinak banatzen eta parrilan lanean aritu zirenak pixka bat bustita bukatu arren, hauei ere ez zitzaien umore ona falta izan. Tripa nahiko beteta eta eztarria ere berotuta izanik, kantuan hastea besterik ez zen falta. Esku-orri batzuk banatu ziren abestiekin eta kitarra batek lagunduta, kantu-kantari aritu ziren denak eguraldi txarrari aurpegi ona erakutsiz.

elan euskadi
ONGD - GGKE

Elkartasuna erritmo beroekin

Deboson talde kubatarra.

Elkartasunaren bideak ugariak eta desberdinak dira, eta modu askotan bideratu daiteke herritarren laguntzeko asmoa. Elan Euskadiren laguntzaz, uda honetan Kuba laguntzeko modua izango da, bertako kultura eta musika ezagutuz, gainera.

Elkartasunezko kontzertuak 2005 lelopean, bi helburu nagusi bete nahi dira: Kubako musika eta kultura herritarrei hurbiltzea batetik, eta Kubako umeen heziketa eta osasuna sustatzen laguntzea, bestetik. Nola? *Deboson* talde kubatarrak udaran eskainiko dituen kontzertuen bidez.

1999. urtean zabaldu zen Euskadin kultur-lankidetzarako bidea, eta hari jarraitu nahi zaio. Funtsean, musika-talde honek kontzertuak eskaintzen ditu, Kubako eta Karibe osoko musika eta dantzako ikuskizuna eskainiz, eta ekitaldi hauen irabaziak Habanako probintziako gizarte intereseko programak (hezkuntza eta osasun publikoa) diruz laguntzeko erabili ziren. Hori errepikatu nahi da, ekainaren erdialdetik irailaren erdialdera.

Deboson taldea orain bederatzi urte sortu zen, eta Kuban bertan zein handik kanpo ibilbide oparoa osatu du. Kubako musikaren mamia baztertu gabe (guratxak, kunbiak, merengeak, guajirak, etab.), beste musika esperientzetara zabalik dagoen taldea da. Kubako agertoki ezagunenetan izan dira (Copacabana, Varadero,...) eta telebista zein irratietan emanaldiak eskaini dituzte. Kubatik kanpo, Mexikon, Suitzan, Venezuelan, Kolonbian, Espainian, eta lehen esan bezala, Euskal Herrian izanak dira. Gaur egun, Habanako "La Mina" konplexu turistikoan diardute lanean. Zazpi musikarik eta hiru dantzarik osatzen dute *Deboson* taldea.

Elan Euskadiren bitartekaritza udaletxeen aurrean izango da, hauen kontratazioaren bidez (herriko jaietan esaterako), musika eta kultura emanaldia eskaintzeaz gain, Kubako haurrei laguntza emateko modua da, erritmo beroz beteriko elkartasuna, zalantzarik gabe.

OITZera ibilaldia!

Maiatzaren 20an, ostirala, Oitz mendira joan ginen egun pasa 5. eta 6. mailakoak.

10:30ak inguruan Markinan ginen. Autobusez eta Elgoibartik joanda imagina zaitezkete nola iritsi ginen! Ba ez badakizue esango dizuegu: marea-marea eginda. Markinako Plazakola auzoan elkartu ginen Iñigo eta Amaiarekin (begiraleak). Horiek bi taldetan banatu gintuzten, batzuk Amaiarekin eta besteak Iñigorekin.

Test batekin hasi ginen lanean. Ondoren, zentral-hidroelektriko txiki bat bisitatu genuen, eta bertako azalpena eman ziguten.



Gero, Etxeberri herriko hotelean eguzki-xaflak eta kotxe bat, eguzki-xaflekin nola ibiltzen zen ikusi genuen.

Garai herrian geundela, hamaiketakoa jan eta jolasean ere ibili ginen. Autobusa hartu eta Oitz mendian errotak ikusten aritu ginen. Paraje ederrean bazkaldu eta Getariara bueltatu ginen.



Oso ondo pasa genuen, batez ere Oitz mendian. Eguraldi oso ona egin zuen eta paisaia politak ikusi genituen. Oso interesgarria izan zen dena; eta asko ikasi genuen.

Lizardi institutuak eta eskolak 05-06 ikasturteari 31 eskutik

Hezkuntza erreformak herri txikietako 12 urteko gaztetxoak DBH egitera herri handiago batera joatea derrigortzen du (Aiatik, Oriotik eta Getariatik Zarautzera esaterako). Inguruko ikasle horiengan eta beraien familietan konfiantza sortu behar zen orotariko informazioa eskainiz institutuari eta bere funtzionamenduari buruz. Zalantzarik ez zegoen hainbat herri eta girotako ikasleak (Aia, Orio, Getaria eta Zarauzkoak) elkartzeak bazituela alde aberasgarri ugari. Bestalde, baziren kontu eta arreta handiz landu behar ziren bi alderdi funtsezko: ikasleen harrera eta egokitzea. Horri aurre egiteko laster hartu zen erabaki ezin zuzenagoa: hurrengo ikasturtean Lizardi institutuan DBHko lehenengo mailako ikasketak egiten hasiko ziren ikasle guztiak (Lardizabal, Zaragueta, Iturzaeta, Andatza eta Orokietakoak), institutuan lehen maila burutzen ari zirenekin batera egunpasa egingo zuten maiatzaren bukaera aldera. Horrela, bada egun-pasa hori, "ibilaldi" neurtu gisara egiten da hasiera-hasieratik. Egia esan ekintza horri alderdi onak baino ez zaizkio ikusten, baina, hori guztia antolatu egin behar! Badute meriturik, institutuan eta eskoletan horren ardura hartzen duten irakasleek.

Aurten ere, aurreko urteetako ohiturari jarraituz, maiatzaren 26ean, goizeko 8:30erako zintzo asko heldu ziren Lizardi institutuko DBH egoitzako atarira Lardizabal, Zaragueta, Iturzaeta, Andatza eta Orokietako ikasle nagusienak: hurrengo ikasturteari aurrea hartuz elkar ezagutu eta elkarrekin eguna pasatzeko asmoz. Agian lagun berriak egingo dira; baina egun bakar bat ez da nahikoa horretarako.

Ez pentsa, ikasleak bakarrik joan zirenik! 189 ikasle ziren eta 19 irakasle, bakoitzaren betebeharrak ongi baino hobeto aldez aurretik zehazturik. Eguna ongi antolatuta: Institutuko DBHko egoitzatik abiatu eta Zarautz inguratuz Astira bazkaltzera. Ikasleek bakoitzak berea, aitak (honezkero horrelakorik gertatuko al da!) edo amak etxean prestatutakoa. Irakasleek tabernan! Eskolan bezala, irakasle eta ikasleen arteko desberdintasuna gorde egin behar da! Nor da agintzen duena? Irakaslea!! Bazkal ostean, makina bat jolas eta joko egin zituzten: ikasleek euren abileziak agertzeko egokiera aproposa. Dena giro jatorrean. Hala ere inork ez zuen galdu nahi.

Antolatu gabe zegoen alderdia: eguraldia. Antzinean egiten zen moduan, seguru asko San Antoniori inork ez zion kandelarik jarriko biharamunerako giro ona eskatuz. Edonola ere, aproposa egin zuen. Eguzkia egunero bezala irten zen, baina, Zarautz lainopean zegoen. Beraz goizeko freskuran abiatu arren, ondoren eguzki galdatan igaro zuten eguna.

Arratsaldeko lauretan bakoitza bere etxera. Etxean galdeketa:

- Nun ibilli zeate? –erantzunik ez.

- Konta zazu ba, ze egin dezuen edo... - mutu.

- Ume honek eztu ezer kontatzen! - geroz eta gutxiago.

Lasai! Hurrengoan ere zure herriko aldizkaria irakurri eta, zehatz-mehatz jakingo duzu semeak edo alabak egun horretan zer egin zuen. Baldin eta aldez aurretik kontatu badizu, zorionekoa zu!

Datorren urtean ere ez dugu hutsik egingo. Aupa euskara!

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
faxa: 943 140 604
Mobila: 652 775 061
E-posta: eugeniouranga@hotmail.com

Liberty Seguros
·ASEGURUAK
·INMOBILIARIA
·ERREFORMAK
Basadi Auzategia 14 ZUMAIA
Tel: 943 860 478

Ursulina lekaimeak

Ursulina lekaime deitura ematen zaie Santa Ursularen Erregla eta espiritualitatea jarraitzen dutenei.

Santa Ursula, jaiotzaz Angela de Merici, Desenzano herrian (Brescia, Italia), Garda lakuaren ondoan, jaio zen1474ean, nekazari giroko sendian. Hamabost urterekin umezurtz gelditu zen, eta bere ondasun parteari uko egin zion behartsu bizitzeko. Berehala Bresciara joan zen, sekularren artean kristau estilo elkarte berezi batean bizitzeko asmoz. Horrela hasi zen lanean gazte umezurtz eta behartsuekin.

1535 urtean Santa Ursularen Konpania sortu zuen, batez ere gazteen zerbitzu espirituzkoa eta gizakoizkoa laguntzeko. Paulo III. Aita Santuak bere Regla onartu zuen 1544an. Horrela hasiera eman zion sinesmena era berri batean bizi eta laguntzeko bideari. Emakume sekularrez osatutako taldea zen, botorik gabea eta janzkera berezirik gabea. Bakoitza bere etxean bizituaz egin ahal izatekoa, beren lanetik bizi izanaz. Trentoko Kontzilioaren aplikazio sekular ederrenetakoa izan zen bere proiektua. Brescian hil zen 1540an, eta 1807an Santu mailara igoa izan zen. Bere jaia, urtarrilaren 27an ospatzen da.

San Karlos Borromeoren kontseiluz, 1565ean talde hau Kongregazio bihurtu zen, haserako era sekularra utziaz. Horrela jarraitu izan dute lekaime hauek heziketa munduan aurrelari.

Ursulina lekaimeak, Getarian

San Salbador Parrokiko "Libro de Matrícula" liburuak dioenez, 1904ko urtean Lekaime hauek Frantziatik Getariara etorri ziren, gaur egun Sahatsaga kalearen hasieran zegoen etxera. Etxe hau 1619tik hotela omen zen. Taldea 32 lekaimek osatzen zuten: 16 lekaime eta beste 16 lekaimetzarako prestatzen.

Getariar askori entzuna diotenez, Getariako herria hizkuntza frantsesa eta eskola ederraren jabe egin omen ziren lekaime hauen lanari esker. Elizkizunak ere benetan bereziak eta liturgi aberatsean ospatzen ziren. Getaria eta inguruetako herrietako gazte umezurtz eta behartsuek ateak oso irekiak eduki omen zituzten hemen urte haietan.

Urte batzuk geroago, Udala beren aurrean Elkanori harrizko monumentoa eraikitzen hasi zen (1922.IX.6), bere itsas ontziko "mascarón de proa" deritzana aurrean zuela. Irudi hau emakumezko arropa gabeko bulardun batek osatzen du. Entzuna dugunez, garai hartan Udalari erregutu zieten biluzik zegoen irudi hura ez zela egokia beren etxe aurrean era hartan izatea, ez eta herriaren begietan ere. Eta nahiz herriak samin handia hartu, berriro Frantziara itzuli omen ziren 1925ean, 21 urte bertan egin ondoren.

Getariako hainbat pasadizoen artean, orain ehun urte (1904-2004) gertatu zenaren oroimenez idazki hau herriratzen dugu.

Askatasun bidean
bilatzen garen
ostro eroriok,
lurraren zainetan
itsatsirik ditugu
euskalerriaren taupadak

Entzun,
askatasun bidean
galdutako ostro eroriei,
lurraren zainetan
itsatsirik
euskalerriaren taupadak

Itzalik ba ote
ostro eroriek?
Noiz noizka
haize bortitzak
astindutako ostroek?
Non bidean
moteltzen diren
taupadak

Oiartzun bakar batean,
udako gau luzeetan,
luzeak batira
dizdirarik gabeko
gauak,
askatasun bidean
galdutako gailurrak,
abesti baten melodian
galdutako egiak.

Entzun,
askatasun bideko taupadak
euskaldunon taupadak

Ayo, PELAYO!

"Hi, Agustin, irakurtzea asko gustatzen zaidak eta zer iruditzen zaik Artzapen literaturari txoko bat egiten badiogu? Froga gisa liburu baten inguruko burutapenak bidaliko dizkiat, gustuko baduzue ondo eta bestela, ez duk ezer gertatzen. Ez diat inor gogaitu nahi"

2001eko uda hasiera zela uste dut, aldizkaria bi hilabetez behin kaleratzen zen eta barrua borborka nuen: maitasunaz hitz egiteko, sexuaz, erlijioaz, matxismoaz, kirolaz, hezkuntzaz, politikaz... ordutik hona 30 bat koartila xuri itsasoratu ditut beirazko botiletan, guztietan barrua askatzen saiatu naiz. Biluzik, gordin-gordinik azaldu naizela uste dut. Ez maskara, ez mozorrorik.

Eta ahalegindu naiz, baita, irakurlea ez aspertzen, kale kantoian korrientia sortzen, iritziak, pentsaerak, aurreiritzi eta usteak mugiarazten. Askotan tonu zirikatzailea eta lotsagabea erabiliz, bestetzuetan ironiaz eta sarkasmoz.

Baliteke nire kale kantoiko korrientiak noizbait ipurdiko katarro bat baino gehiago eragin izana, batzuei azalean pinportak aterako zizkien nire txoro haizeak eta izango da malaletxean jarri dudanik ere. Horiei guztiei horrelakoetan esan ohi dena errepikatuko diet: gaizki esanak barkatu eta bestela... izorratu. Nik asko gozatu dut zuekin.

Azken aldizkarietan, ordea, ez dut lortu kantoiko hostorik mugitzerik, sikiera fu txiki bat, hasperentxo bat... eta kritikarik dezatseginena isiltasuna omen, hanka puntetan pasatzea, inor konturatu gabe. "Tate, Zigor, hireak egin dik" esan nion nire buruari, "hondartzara iristen diren botilatxoak kaioei enbarazu besterik ez ziek egiten. Utzi hitzak bakean".

Eta aitortzen dut penaz utziko dudala Artzapeko kale kantoia, batik bat, Jon, Irantzu, Ane, Agustin, Agurtzane, Kepa, Josune parea eta koadrila egiten ari diren ordainezineko lanari bizkar ematen ari naizela sentitzen baitut, jakin bai baitakit zenbat kostatzen den aldizkariko lerro bakoitza idaztea, zenbat tona irudimen erabili behar den aldizkari bakoitza hilero-hilero getariarron posta kutxatan egon dadin. Bejondeizuela eta barkatu traizioa.

Eta azken lerroak irakurle fin horri eskaini nahi nizkioke. Zurekin bihotzezko tangoak dantzatu ditut, maiteminaren emozioa bizi dut, besarkada eta musu heze-beroak elkarrekin amestu ditugu. New Yorken Empire Stateko azken solairuan zain izango nauzu edo Buenos Aireseko kale kantoi batean, erratza besoetan hartu eta dultzemeneoan, Sinatra edo Gardelen melodiaz. Eta idatziko dizut, koartila xuriekin kaioak edo txalupatxoak eginez, edo hondarretan hizkiak lerratuz egunero-egunero, itsasgorak nire poemak bere magalean zuretzat eraman ditzan.

Adiorik ez, gero arte baizik eta besarkada handi bat, A, O, E, M, I, B, L... eta M.

Zihotzako Fermina: "Soldaduek jateko genuen guztia kentzen ziguten"

Fermina Azpeitia Ezenarro Gurutze baserrian jaio zen orain 88 urte (Salbatore Egunean beteko ditu 89). Zazpi senidetan bigarrena, emakumeetan zaharrena, hogeita zazpi urterekin Miako Zihotza Behea baserrira ezkondu zenetik hantxe bizi da. Aurten, Añadiko Joxerekin batera, auzokideen omenaldia jaso du sanisidrotan. Guk San Juan Egunean berarengana jo dugu, egun hori lehen nola bizi zuten eta garai hartako baserriko bizimoduaz galdetzera.

Lehen bezala orain ere baserri aurrean sua egiteko ohiturari eusten diotela kontatu digu Ferminak: "Lehen arbolaren hostoarekin gurutzea egin eta paretean jartzen genuen giltzearekin josita, eta gero San Juan sura botatzen genuen; erramu bedeinkatua ere botatzen genuen suta, baita ur bedeinkatua ere. *Sorginak eta lapurrak erretzeko* zioen kanta kantatzen genuen, baina ahaztu zait nola zen!". Aurten ere egin dute sua "baina ni ez naiz urreratu, aurten etxe ataritik ikusi dut".

Bere gazte garaian erromeria jaierojaiero egiten omen zen Mian "Orain San Isidrotan bakarrik egiten da", eta Zarautzera ere joaten omen ziren. "Orduan dena pekatua zen, eta mutilarekin baltzean egin eta doktrina joaten ginenerako apaizak dena jakiten zuen. Gaixtoa zer zen ba! Belarritik heldu, jarri babarrun alea lurrean, eta haren gainean egon behar izaten genuen belauniko! "

Eskolara Miara eta Getariara joaten zirela kontatu digu, eta ezkondu aurretik antxolanean ibilia dela "despeskan eta antxoari burua kentzen ibiltzen nintzen primitibonean".

Baserriko bizimodua asko aldatu dela azaldu digu "lehen dena eskuz egin behar izaten zen, ihitaiarekin-eta, orain makinekin errazagoa da".

Izan ere, bai Gurutzen eta bai Zihotzan makina bat lan egindakoa da Fermina, "Gurutzetuj sagardoa saltzera joaten ginen Getariara". Garai hartan soldaduak zirela eta beldurrez egoten zirela kontatu digu: "Etxea bete soldadu izaten genuen, tomatea, babarruna, tipula... dena kentzen ziguten, eta guk isil-isilik egon behar! Ilara batean 24 etortzen ziren igual, eta gero hurrena beste 24... gure etxea, Gurutze, kamio ixkinan zegoenez, etorri eta egindako guztia jaten zuten, eta gu gero goseak... eta ezer esaterik ez! Zarautzetik etorri, Elkanora joan, eta horrelaxe ibiltzen ziren; Garate Gainean dagoen zuloan egoten ziren, eta handik gure etxera. Beldurrez egoten ginen, noiz etorriko eta noiz alde egingo... ez ziren bela joaten!"

Getariara esnea saltzera joaten ziren garai hartan "Astoarekin esne saltzera bidaltzen gintuen amak, eta joan egin behar; eta bidean ikusiz gero, soldaduek esnea kendu edo dena lurrera botatzen zuten. Bueltan, etxerako bidean, ikusiz gero berriz, egindako enkargoak... dena kentzen ziguten. Gero etxera joan zaitez ba poltsa hutsarekin! Getaira joateko beldurrrez egoten ginen. Gerra? Hura bai gerra!"

Gerra garaiko oroitzapenak ere baditu: "Garate Gaineko zulotik tiroka ibiltzen ziren, batzuek han eta beste batzuk San Antoko mendian. Beldurrez aidean egoten ginen!".

Gatzak

Izerditzea gure gorputzak beroari aurre egiteko martxan jartzen duen mekanismoa da. Kanpoan tenperatura gora edo behera, gure barruan beti eduki behar dugu tenperatura bera, gure gorputzak ondo funtzionatu dezan; eta bero gehiegi dugunean izerditzearekin lortzen dugu 36,5 tenperatura mantentzea, ura galduz. Izerditzen dugunaren arabera gure ur beharrak asko alda daitezke, baita gure elikaduran elikagai gazi asko jaten baditugu ere. Udan, askotan gertatzen diren elikagai bidezko intoxikazioen ondoreneko sukar, gorako eta beherakoek ere ur gehiago edatea eskatzen dute. Baina izerditzean ez dugu ura bakarrik galtzen, baita gatzak ere, urarekin batera doazenak, gure zelulen oreka mantentzen dutenak, sodioa eta kloroa batik bat . Beraz, gure elikaduran ura edateaz aparte, elikagai urtsuak jatea komeni da, esaterako fruta eta berdura. Horrela mineral hauen beharra erraz asetuko dugu, baita beste mineral eta bitamina askorena ere.

Komeni da jatordu bakoitzean elikagai hauek sartzea:

- Goizean fruta jan edota zumoak egin. Barazkiak ere sar daitezke, garaikoak noski, azenarioa eta tomatea adibidez, gure azalaren pigmentazioa zainduko duten sustantziak eskainiz.
- Hamaiketakoan eta askarian fruta gehiago jan dezakezue.
-Bazkaltzeko eta afaltzeko ez dira falta beharko egunero garaiko berdurekin egindako entsaladak lehenengo platera edo lagungarri moduan. Gutxienez egunean behin barazkiak gordinik jatea garrantzitsua da.

Horrela, gure gorputzeko ehunak ondo hidratatuta egotea lortuko dugu, eta beraien lana ondo betetzeko hain beharrezko diren mineral eta bitaminak aseturik egongo dira.

Haurrei fruta eta berdurak erakargarriak direla erakutsi behar diegu, atentzioa eskaini beraien kolore, forma eta zaporeei. Denbora hartu horretarako, zumoak prestatzen erakutsi adibidez, beraien parte hartzea eskatuz frutak aukeratzerako orduan, txikitzen lagunduz eta kolore ezberdinetako zukuak prestatuz, goizean, bazkaldu aurretik,... denbora duzuenean, haurren oporraldiari naturak ematen dizkigun kolore eta zaporeak eskainiz.

Bertan behera geratu da!

Udaberria eta maiatzeko egitaraua bukatutzat emateko bost taldez osatutako ezusteko festa antolatu zen gaztetxean. Hasera batean **The Mae Shi** eta **Rapider than Horsepower** amerikarrak eta **Metralleta** zarauztarren presentzia iragarrita bazegoen ere, azken unean lehendik ere hemen izandako **Scavenge** eta **Afganistán Yeyes** kataluniarrak gehitu zitzaizkien. Demasa! Azken bi talde hauen punk-hardcore umoretsu bezain dibertigarria; Zarauzko laukotea ere antzeko ildoan eta azkenik laukote yankiak: post-punk, rap, techno, gospel eta beste hamaika erritmo ezberdinen koktel apurtzailea! Betiko moduan, jendearen erantzuna oso ona eta guztiok kontent irteeran.

Ekaineko kontzertuei helduz, Ketarrik eskeini zizkigun hilabeteko lehen emankizunak. Alde batetik **Discípulos de Dionisos** taldearen energiaz beteriko punk-rock pornografiko azeleratua (ohiko sorpresa barne) eta bestetik elektronika kutsuko **Miss-Toll** bilbotarra, **Munlet** bikote mendaroarra eta **Humbert-humbert** madrildarren kontzertua. Etzen jende asko bildu (ez batean ez eta bestean ere) baina aukera ona izan zen euskal eszena honetan hain ohikoak ez diren proposamen hauetaz gozatzeko.

Gaztetxearen programaziora bueltatuz, hiru kontzertu zeuden hasera batean iragarrita baina azken mementuan Scott Nydegger amerikarraren **Shikara** perkusio proiektua, eta bestetik, **Raxinasky** bikote belgiarraren eta **Plastered** holandarren kontzertuak bertan behera geratu ziren, biak ere furgoneta arazoak argudiatuz. Hala eta guztiz ere nahikoa festa izan genuen **Smackdown** "atleta" suediarrak, Sick of it All-ekin batera biran ibilitako **Nitrominds** hirukote brasildarra eta **Txixaparrazta** zarauztarrak parte hartu zuten kontzertuan. Punk-hardcore klasikoa, melodia gehituz (brasildarrak) edo bi ahots zakarrez zarauztarrak, Ainhoaren ahotsak ikutu interesgarriagoa ematen diolarik taldeari. Suediarren musika, berriz, ondo landutako kaos ikaragarria!

Udan ere izango da zer ikusi edo entzun: **Azkaiter Pelox**, **Café Teatro**, **P3z Orchestra**, **Anevil** edota **Today is the Day**, besteen artean.

R.S.P. 192/02 zbk.
HORTZ KLINIKA
MOZÈS HIRIART eta SOULIER
ODONTOLOGOAK
laruabatetan egun osoa zabalik!
· ODONTOLOGIA OROKORRA · AHOKO PREBENTZIO ETA ERREHABILITAZIOA
· PERIODONTZIA: (KIRURGIARIK GABE) · PROTESIA
· ENDODONTZIA · HORTZ ESTETIKA: (ZERAMIKA METALARIK GABE)
· INPLANTOLOGIA: (TEKNIKA BERRIENEI ESKER, INPLANTEAK JAR DITZAKEGU, NAHIZ HEZUR GUTXI IZAN)
Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. Tfnoa: 943 130 278 ZARAUTZ

BALEARRI
jatetxea-txiringitoa
kaia z/g Tel.: 943 58 09 11 20808 GETARIA

IMANOL ELORZAren ERAKUSTOKIA
IMA ELORZAREN ESKULTURAK
eta
IMANOL ELORZAREN OLIOZKOLANAK
katrapona 2, 20808 Getaria

] uztaileko agenda

antzerkia

Uztailak 15, ostirala

ANTZERKIA: ADANEN POEMA AMAIGABEA

Joseba Zulaikak idatzita eta Goaz antzerki taldeak aurkeztuta.

Lekua: Herri Eskolako areto nagusian

Ordua: 22:30ean

zinema

KALEKO ZINEMA

Uztailak 22, ostirala

TXORITXOAK filmaren emanaldia

Ordua: 22:00etan

Lekua: Katrapuna enparantza

Uztailak 23, larunbata

DESCUBRIENDO NUNCA JAMAS filmaren emanaldia

Ordua: 22:30ean

Lekua: Katrapuna enparantza

KZgunea

Ikastaroak eta nabigatzeko aukera paregabea

KZgunearen ordutegia: liburutegiko ordutegian (10:00etatik 13:00etara)

Tutorearen ordutegia: asteartetan

Uztailak 5, 12, 19 eta 26 (16:00-20:00)

Uztaileko MINTEGIAK:

Uztailak 5, asteartea

Lanpostu bat lortzea (17:00-19:00)

Uztailak 12, asteartea

Euskal nekazaritza (16:00-18:00)

Uztailak 19, asteartea

Kolabora ezazu sarean (17:00-18:00)

Uztailak 26, asteartea

Asteburu bat Euskal Herrian (18:00-20:00)

Irteera

Uztailak 14, 15, 16

PORT AVENTURA eta UR PARKEra IRTEERA

Izen-ematea: kiroldegian eta liburutegian, uztailaren 10a baino lehen.

Antolatzailea: Sahatsaga kiroldegia

Uztailak 30, larunbata

GETARIAKO IV. SALBATORE BIATLOIA

kirolak

Uztailak 30, larunbata

GETARIAKO IV. SALBATORE BIATLOIA

Igeriketa eta lasterketa

Adina: 16 urtetik gorakoentzat

"UDA 2005" KIROL JARDUERETAKO KANPAINA

Kirolak:

BELA, PIRAGUISMO, SURF, URAZPIKO JARDUERAK, IGERIKETA, AEROBIC, SPINNING, FRONTENIS, TENIS, HONDARTZAKO BOLLEYA.

Izen-ematea eta informazioa: udaletxean (tel.: 943 896024), liburutegian (tel.: 943 896147) eta Turismo Bulegoan (tel.: 943 140957)

SALBATORE DEUNA VIII. PILOTA TXAPELKETA

Gure Txeru elkarteak antolatuta, federatuentzat (kadeteak, jubenilak eta 22 urtetik beherakoak).

Partidak: astelehena eta astearkena (19:00etan) eta larunbata (18:00etan).

*** Salbatore egunean (abuztuaren 6an) txapelketaren finala jokatuko da.

kontzertuak

Uztailak 9, larunbata

JAVI P3Z ORQUESTA (Gipuzkoa)

"Sports" -ek aurkeztuta

Estiloa: Afro-Highlights, Latin-Groove, Funk-Soul

"9 musicians live band"

Gaueko 11:00etan

Lekua: Ketarri taberna

Uztailak 16, larunbata

THC (Iruñea)

Estilo: Jazz House "8 musicians live band"

Gaueko 11:00etan

Lekua: Ketarri taberna

Uztailak 23, larunbata

1. KETARRI SUNSPLASH FESTIBALA

SUPER APE (Santander) - full live band -

LONE ARK, 12 TRIBU (Urola-Kosta) - full live band

ROOTS GARDEN & NATION VIBRATION SOUND SYSTEM (Brighton-UK)

Feat: **ROOTS SEEKER** (Japonia) + sopresa singer...

"...Benetako sound system inoiz ikusigabekoa. HEAVY BASS & DRY DRUM..."

FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: uztailaren 1a eta 2a, eta uztailaren 26tik 30era (biak barne).

azoka

Uztailaren 15etik abuztuaren 12ra

LIBURU ETA DISKO AZOKA

Lekua: Gure Txeru

Antolaitzailea: Gure Txeru Elkartea

telefono interesgarriak

Udal bulegoa	943 896 024
Faxa	943 140 190
e-mail:	udala@getaria.org
Kiroldegia	943 140 432
Kirol-portua	943 580 959
Taxiak	
Segundo	607 720 242
Jose Mari	607 403 498
Udaltzaingoa	943 896 146
Liburutegia	943 896 147
Anbulatorioa	943 140 653
Botika	943 140 441
SOSdeiak	112
Kofradia	943 140 200

artzape aldizkaria
943 000 548
artzape@topagunea.com

Amabirjina moilan saltoka, arrantzan...



Nork ez du inoiz Amabirjina moilatik salto egin? Zenbat jende pasa ote da bertako esplanada eta eskaileretatik gora eta behera bata bestea harrapatzen edo uretara bota nahian?

Getarian moilak historia handia du eta zer esanik ez Amabirjinarenak. Lehen xarboleta asko harrapatzen omen zen inguru horretan, baita txibiak edo eta txokorroak ere, besteak beste. Giro ederra egoten zen arrantzan edo bainatzen ibiltzen zen jendearen artean.

Karmengo Amabirjina arrantzaleen zaindaria da. Garai batean, San Pedro egunez, ekainaren 29an, Amabirjinaren bedeinkazioa hartu ondoren arrantzaleak itsasora irteten ziren atunetara.

Garai berriagoetara itzuliz, urtero egiten den Getaria-Zarautz igeriketa trabesian ere, parte hartzen duten igerilariek Karmengo Amabirjinari San Ferminetako ereserkia abesten diote.

zorion agurrak

Antoni Egurbide
Ekainak 10
Zorionak 60. urtebetetzean iloba eta familia guztiaren partetik. Aratz, Julen, Beñat, Kepa eta Unai.

Jokin Ezenarro
Uztailak 26
Zorionak zure 7. urtebetetzean eta ondo-ondo pasa. Aita, ama eta Ekhi.

Itsaso Ezenarro
Uztailak 21
Zorionak Itsas, laster sendatu eta ondo pasa oporretan! Aratz, Beñat eta Unai.

Valentin Etxeberria eta Rosi Navarro
Uztailak 19 eta 28
Zorionak, bioi eta ondo-ondo pasatu eguna familiaren partetik.

Onditz Galdos
Uztailak 10
Zorionak sorgintxo zure 3.urtebetetzean, familia eta bereziki, Ametsen partetik.

Mikel Zabaleta
Uztailak 29
Dagoeneko 24 urte! ondo-ondo pasatu eguna. Familia.

Sorkunde Etxeberria eta Aitziber Fernandez
Uztailak 27 eta 9
Zorionak bioi eta ondo-ondo pasatu zuen eguna familiaren partez.

Iñaki Larrañaga eta Monica
Uztailak 26 eta 30
Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partez.

Uxue Sanbade
Uztailak 21
Zorionak eta ondo pasatu zure 10. urtemuga.
Aita eta ama.

Kontxita Oiartzabelek utzitako argazkia. 1912. urte ingurukoa.